

Van Morrison, inor ez balitz bezala bizitzeko erabakia hartu zuen gizona

Euskal Herrian lehen aldikoz joko du bihar 'Belfasteko Lehoi zaurituak'

Van Morrison eta bere taldea bihar gaueko hamarretatik aurrera Bilboko La Casillako taularen gainean izango dira. Berrogeitazazpi urte betetzear dagoela, 'Belfasteko Lehoi zaritua' deitua izan dena jada Kaledoniako errege bihurtu da.

• LOREA AGIRRE / DONOSTIA

«Neretzako gauza fisiko bat da. Nere gorputzak, musikak goitik behera zeharka dezan behar du, eta ondoren nerbio sistematik kanpora bota. Horregatik bihurtu nintzen musikari. Nere gorputzak ariketak egin beharra zuen, nere gorputzak sexuaren beharra zuen, nere gorputzak musika jo beharra zuen». George Ivan Morrison (Belfast, 1945) mirestutako musikaria da, kritika espezializatuak behin eta berriro goraipatzen duena, jende gehiegirik ezagutzen ez duena. Arrakasta edo dirua ez ditu helburutzat, berataz ezer gutxi dakigun musikari honek. 1974etik aurrera apenas eskaini du elkarrizketarik, Bere bizitzaren testigantza bere musikak ematen digu.


Sormen oparoko gizona da, zoriontsu nahiz galdurik sentitu denean ere. Inoiz topatu izan du bere burua zuzenak eta okerrak zentzurik ez duten mugan, alkoholak eta bakardadeak jota. Rhythm'n'blues musika, bere jatorria Irlanda (mundu keltiarra) eta bizitzari zentzua bilatzea izan dira egin duen bidearen oinarriak. Eta bide horrek helmuga bakarra du: Kaledonia.

Kaledonia —erromatarrek Eskoziari jarri zioten izena da, nahiz lurralde hau inoiz menderatzea lortu ez zuten— du beti erreferentziatzat Van Morrisonek. Bere urratsak Kaledoniara zuzentzen ditu beti. Baina Kaledonia ez da ezagutzeko hiri bat, ez da lurralde bat. Morrisonen musika entzunez bakarrik iristen da Kaledoniara. Ideia horren il-dotik sortu izan ditu Van Morrisonek, bere banda, Caledonia Soul Orchestra, eta bere produktora, Caledonia.

HOGEITAZAZPI DISKO BAKARREAN

Van Morrisonek bakarlari gisa hogeitazazpi disko ditu. 1963an Them taldea osatu zuen. Lehen aldikoz, Morrisonek berak konposatutako kantu bat diskoratu zuen: 'Gloria'. Hemeretzi urte besterik ez zituen, tamainaz txikia eta lotsatia zen musikari honek. Talde honekin bi disko kaleratu ondoren, bakarkako bideari ekin zion.

1967an Them taldearen pro-



Ikusmin handia sortu du Van Morrisonen kontzertuak.

duktora berak Bert Bernsek kontratu bat eskaini zion. Honek, Morrisonen baimenik gabe, 'Blomin' your mind' lehen LPa kaleratu zuen. Apenas entzun zen inon, gogorregia zen, mingarregia, artean ere ilean loreak zeramatzan gazteriarentzat. Hurrengo urtean bere diskorik onenetarikotzat hartua izan dena osatu zuen, 'Astral Weeks'. Garai hartan Boston hirian bizi zen eta alkoholaren morroi, gauetan irratietara deitu ohi omen zuen John Lee Hooker-en kantuak eskatzeko (1976an Hookerren 'Never get out of the these blues alive' diskoan hartu zuen parte). Egoera honetan, berrogeitazortzi ordutan grabatu zuen aipaturiko diskoa. Hurrengo hogeitabost lanetan konstante bat izango de-

Van Morrisonekin batera

Ronnie Johnson (gitarra)
Nicky Scott (baxua)
Geoff Dunn (bateria)
John Miller (pianoa)
Kate St. John (saxo eta oboea)
Teena Lyle (perkusio eta bibrafonoa)

na agertuko da. Jazz, blues, soul eta musika tradizionala nahastuz sortuko da Kaledonia izpiritua, Morrisonen ukitu propioa. Arrakasta handirik izan ez bazuen ere kritika espezializatuak ondo baino hobeto hartu zuen eta gaur egun ere gaurkotatzen galdutako duen diskoa da.

✓ Berrogeitamazortzi urte betetzear ditu, eta hogeitazazpi disko plazaratu ditu dagoeneko musikari irlandar ezagun honek.

✓ Bere azken diskoetan badirudi Van Morrisonek bakea eta lasaitasuna aurkitu duela, Lehoiari zauriak sendatu zaizkiola.

1970ean 'Moondance' LPa kaleratu zuen eta banda propioa osatu. Talde honetatik sortuko da urtebete beranduago Caledonia Soul Orchestra. Urte berean 'His Band and the street choir' lana eman zen argitara eta ondoren 'Tupelo Honey' diskoa. John Platania, Jack Schroer, Jeff Labes —hari atalekoak—, Ronnie Montrose, Ron Elliot —gitarra-joleak—, Leroy Vinnegar, David Hayes —baxujoleak—, Gary Mallaber, Connie Kay, Rick Schlosser —bateriak—, Mark Nafatalin, Mark Jordan —pianojoleak— eta Nathan Rubin —bibolinjolea— igaro ziren orkestra honetatik, 1974a bitarte. Morrison beti inguratu izan da goi mailako musikariek, bai bere lanak ekoizteko eta bai zuzenean jotzeko ere. 'Saint Dominic's preview' (1972), 'Hard nose the highway' (1973) eta 'It's too late to stop now' (1974) dira hurrengo lanak. Ondoren taldea deuseztu, bere emaztearengandik banatu, Amerika utzi eta bere sorterrira itzuli zen.



Jarraitzaile zintzo ugari du kantari irlandar honek Euskal Herrian.

Diskografia

'Blowin your mind' 1968.
'Astral weeks' 1969.
'Moondance' 1970.
'Van Morrison, his band and street choir' 1971.
'The best of Van Morrison' 1971.
'Tupelo money' 1971.
'Saint Dominic's preview' 1972.
'Hard nose the highway' 1973.
'It's too late to stop now' 1974.
'T.B. sheets' 1974.
'Veelon fleece' 1974.
'Two originals of Van Morrison' 1975.
'A period of transition' 1977.
'This is where I came in' 1977.
'The last waltz' 1978.
'Wavelength' 1978.
'In to the music' 1979.
'Common one' 1980.
'Beautiful vision' 1982.
'Inarticulate speech of the heart' 1983.
'Live al the grand opera house, Belfast' 1984.
'A sense of wonder' 1985.
'No guru, no method, no teacher' 1986.
'Poetic Champions compose' 1987.
'Irish Heartbeat 1988' Van Morrison & The Chieftains.
'Avalon Sunset' 1989.
'Enlightenment' 1990.
'Hymns to the silence' 1991.

LEHOIARI ZAUARIK SENDATU

'Veelon fleece' lana da garai berri honetako lehenengoa.

Disko mikatza eta arraroa, oraindik ere obsesionaturik Kaledonia edo izpirituen bakearen bila dabilena. 1975ean Scorsese 'The last waltz' filmean jasotako The Band taldearen azken kontzertuan hartu zuen parte Morrisonek, Bob Dylan, Neil Young, Joni Mitchell eta beste zenbaitekin batera. 'A period of transition' (1977), 'Wavelength' (1978), 'Into the music' (1979) —lan honetan, besteak beste, Ry Cooder, Toni Marcus bibolinjolea, Pee Wee Ellis saxoa eta Mark Isham tronpetak hartu zuten parte— eta beste zenbait lanen ondoren, 1982an Zientzialogia deitu Elizako partaide egin zen. Jehovaren Lekukoen erlijioan hazia, mistizismotik igaro eta sekta honetan bukatu zuen. Garai honetan lau lan kaleratu zituen eta laurak Irlandatik inoiz baino gertuago daude: 'Beatiful vision', 'Inarticulate speech of the heart', 'Live at the opera house, Belfast' eta 'Sense of Wonder'.

Jada 1986a da eta bere bizitzak aldaketa bat izan du. Zientzialogia utziko du. Honen lekuko hurrengo lana da: 'No guru, no method, no teacher' ('Ez gururik, ez metodurik, ez irakaslerik'). Berriro ere Caledonia Soul Orkestrako zenbait kiderekin elkartzen da. Hala ere, barne borrokak ez dira amaitu. 'Poetic champions compose' (1987) lana izan daiteke, bere azken lan atormentatua, lasaitasunaren eta ezinegonaren arteko orekan segitzen duena. Hurrengoetan, badirudi bakea, lasaitasuna eta bizitzari neurria hartu diola. 'Avalon Sunset' (1989), 'Enlightenment' (1990) eta azkena duen 'Hymns to the silence' (1991) lan bikoitzean Morrison Kaledoniako errege bihurtu da. Belfasteko Lehoiari zauriak sendatu zaizkiola.